




BIGARREN GERRA KARLISTAREN garaian Getariako (Gipuzkoa) herritarrek ihes egiten erakusten duen marrazkia. XIX. MENDEKO ALBUMA

Mende baten irudiak

XIX. mendeko 1.500 grabaturekin webgune bat sortu du Gipuzkoako Foru Aldundiak

AINARA GOROSTITZU - DONOSTIA

Euskal Herriaren historiari XIX. mendean hangoek eta hemengoek hartutako irudiak Interneten bildu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, XIX. mendeko albuma atarian. «Memoria bisuala gordetzea eta zabaltzea» dira atariaren helburuak, Imanol Agote Kultura diputatuak azaldu duenez. «Batetik, irudiak eurak gordetzeko, digitalizatu, tratatu eta ikertu egin dira. Bestetik, herritarrei zabaltzeko, kultura digitalaren bidez, irudi horiek denon eskura egongo dira». Webgunearen helbidea www.albumsiglo19mendea.net da.

XIX. mendeko hainbat gertakari erakusten dituzten 1.500 irudi daude webgunean. Irudi gehienak hemengo edo kanpoko kronistek egindakoak dira, eta izatez Aldundiaren funtsetakoak dira. Zumalakarregi museoa, Koldo Mitxelena Kulturune-ko liburutegian, Gipuzkoako Artxibo Orokorrean, Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan eta Ontzi Museoa daude irudi horiek.

1.500 irudien artean bilaketa egiteko bost modu eskaintzen

ditu atariak: pertsona historikoen, tokien, ilustrazioen egileen edo hitz baten bilaketaren arabera edo gaikakoa. Irudiek erakusten duten uneari buruzko informazioa dakarte.

Webguneak erakusketa birtualei zuzendutako espazioa du, eta bertan XIX. mendeko gai zehatzak irudien bitartez erakutsiko dira. Aurrerago bi erakusketa sortuko dira, *Gipuzkoa kostatik kostara* eta *Kartografiak* izenekoak, bildumetako plano eta mapa onenetatik ibilbideak eskainiz.

Irudiak, *creative commons* lizentziaren bidez, eskuratzeko moduan dira nahi duenarentzat, doan. «Kulturaren jabetza publikoa» bultzatu nahi du era horretan Aldundiak.

Urte emankorrek ilustraziorako

Mikel Alberdi Zumalakarregi museoko arduradunetako batek azaldu duenez, XIX. mendea oso mende emankorra izan zen ilustraziogintzarako. «Toki askotako kronistak etorri ziren gerra karlistak erretratatzera, eta oso grabatu interesgarriak egin zituzten». Grabatu gehienak,

beraz, gerrei buruzkoak dira, batik bat lehen eta bigarren gerra karlistetakoak. Baina badaude, halaber, paisaienak edota folklorikoak ere, kanpoko bidaiariek Euskal Herrira etorritakoan egindakoak. Komunikabideek erakusten dituztenak, aisialdi garaietakoak, lanbideei buruzkoak edota arteari eta arkitekturari buruzko marrazkiak ere badaude. Zumalakarregiren grabatu ezagunak edota herri txikietako marrazki ezezagunagoak biltzen ditu webguneak.

Aurrera begira webgunea osatuz eta osotuz joango da

Aldundia, urtero lan berriak ezarrita.

Datorren urtean beste 1.500 irudi sartzeko asmoa du, eta erakunde gehiagorekin lan egiteaz gain artxibo pribatuetako funtsak jasoko ditu. Horrez gain, datorren urtean informazioa ingelesez ere jarriko dute.

XIX. mendeko album hau egin 2002an hasi zen Aldundia. Material ikonografikoa digitalizatzen eta ikertzen 15 laguneko taldea aritu da, tartean XIX. mendean espezializatutako historialariak, dokumentalistak, argazkilariak eta ingeniariak zeudela.